



# HITZAR GUNE

2017  
03 zk.

Gernika-Lumoko merkataritza, ostalaritza, elkarte eta enpresak euskaraz



## KUDEAKETA EREDU BERRITZAILEA EUSKARA PLANAREKIN

TORREZURI, mendekotasun egoeran dauden adinekoen atentzio osoan jarduten duten zentroen artean, kudeaketa profesionalean ibilbide nabarmeneko enpresa taldea da. Zentro propioa du Gernika-Lumon eta bere lana beste zentro batzuetan ere egiten du.

Izaera Berritzaileak bereizten ditu, euren zentroen garapenean ikuspegi berritzailea txertatzen du: Zientifiko-gerontologikoak eta Teknologikoak eta, Pertsonen Kudeaketan eta Kalitatearen Kudeaketan.

Testuinguru horretan, eta beraiek eskaintzen duten zerbitzuari zein langileen hizkuntza eskubideei erantzuna emateko asmoz, euskara plana jarri zuten martxan iaz.

Diagnostikoa egin zuten eta, mementoko egoera ikusita, lehentasunak markatu zituzten: Irudi Korporatiboa, Kanpo erabilera (errotuluak, zaharren egoitzako iragarki-taulan zein hormetan jartzen diren oharrak,



erabiltzaile zein euren familiakoei banatzen zaizkien dokumentuak...); eta langileen arteko komunikazioa (ahoz zein idatziz) euskaraz izan dadin prestakuntza jasotzen ari dira hainbat profesional.

Horretaz gain, Torrezuri taldeak euren kudeaketa plana garatzeaz gain, bezero edota erabiltzaileen hizkuntza kontuan hartu nahi du. Hizkuntza altxorra baita bai gizartearentzat, baita norbanako bakoitzarentzat ere. Izan ere, pertsona nagusien kasuan gauza asko galtzen joaten dira, tartean hizkuntza. Eta hizkuntzak pertsona nagusiengan duen eragina ere ikergai da azkenaldian. Basque Center on Cognition, Brain and Language ikerketa zentroan, adibidez aztertzen ari dira hizkuntza bat baino gehiago jakiteak zenbait gaixotasunen aurrean abantailarik ematen duen (alzheimerren aurrean edota neuroendekapenezko beste gaixotasun batzuen aurrean).

# 2006-2016 HERRIKO KALEAK EUSKALDUNAGOAK



2006ko abenduan Gernika-Lumoko kaleko hizkuntza-paisaia aztertu genuen, eta 2016an, 10 urte beranduago gauza bera egin dugu, bi urteen arteko datuen konparaketa eginez.




Aldaketa nabarmenak egon dira Gernika-Lumon hizkuntz paisaiari dagokienaz azken hamar urteetan, emaitza hauetan ikus daitekeenez:

**HITZARGUNE** kanpaina parte hartzen dutenen kopuruak gora egin du 2006tik 2016ra

Errotuluen hizkuntza egoera ere arreta jarri du azterketak. Orokorrean, merkataritzan salbu, ez da aldaketa nabarmenik egon, izan ere, arlo honetan erabiltzen da bereziki mota honetako errotulazioa.

Datuek agerian uzten digute, merkataritza arloan azken hamar urteetan euskarazko errotuluen erabilera gora egin duela eta gaztelania hutsean jartzen diren errotuluek behera.

Edonola ere Gernika-Lumoko Udalak merkataritzan euskara bultzatzeko plangintzak zeharka herritar guztiengan du eragina. Azken batean, gehiago ala gutxiago denok ibiltzen baikara herriko kalean (leku batetik bestera joan-etorrian, zein erosketak eginen).



Euskara English Español

Nor gara ▼ Zerbitzuak eta produktuak ▼ Online kontsultak ▼ I+G+b ▼ Hobelex ▼ Zer berri

UZEI

# hobelex

Follow @UZEI

**Hobelex** zuzentzaile ortografikoa eta lexikoa da, euskaraz akats ortografikorik gabe eta, gainera, lexiko zuzen eta eguneratuekin idazten laguntzen duen tresna.

Deskargatu/eguneratu  
**MS Office plugina:**

Deskargatu/eguneratu  
**LibreOffice plugina:**

Erabili Hobelex  
**ONLINE**

Laguntza-eskubidurak: MS Office / LibreOffice

Gogoratu:

MS Office-n, programa guztiak itxi behar dira instalatzailea exekutatu aurretik.

**Hobelex** eguneratzeko edo berriro instalatzeko, ez da desinstalatu behar aurreko bertsioa.

<http://www.uzei.eus/hobelex/>

## HOBELEX

UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak sortutako tresna da. Euskararen zuzenketarako lehen lexiko zuzentzailea da eta akats ortografikoez gain, lexiko akatsak ere detektatzen ditu, zuzentzeko proposamenak eginez.

### Zer eskaintzen digu Hobelexek?

1. Euskaraz akats ortografikorik gabe idazten laguntzen du.
2. Idazki guztiak lexiko zuzen eta Euskaltzaindiaren arau eguneratuekin idazten laguntzen du.
3. Microsoft Word eta Libre Office-en edozein bertsioarekin erabil daiteke.

Sartu helbide honetan, [deskargatu doan](http://www.uzei.eus/hobelex/) eta instalatu zure ordenagailuan:  
<http://www.uzei.eus/hobelex/>

## SOFTWAREA

Teknologia berriak, sare sozialak etab. gero eta gehiago erabiltzen ditugun garai hauetan, pentsatu al duzu noizbait, esparru hauetan ere, euskarak presentzia izateak duen garrantziaz?

### Softwarea doan euskaratzeko argibideak:

Sartu Bai Euskarari Ziurtagiriaren web orrian: <http://www.bai.euskarari.eus/> Menuan, "Baliabideak" aukeratu eta 4.4. puntuan "Softwarea euskaraz" aukera sakatu. Bi aukera dituzu:

- **Sistema eragileak:** EUSLINUX, DEBIAN, UBUNTU eta LINUX MINT software libreak eta WINDOWS deskargatu ditzakezu euskaraz.
- **Bulegotika:** Office, LibreOffice eta OpenOffice.org 3.3.0 euskaraz eskuratu daitezke esteka honetan.



## LUKENE URIARTE ETA KARMELE LAUZIRIKA // GTR NESKAK



***Lukene Uriarte, kapitaina eta Karmele Lauzirika delegatuarekin elkarrizketa izan dugu. Aurtengo denboraldian nesken talde bat aurrera ateratzea lortu dute. Hitzargunek euskararen erabilera jorratzea helburu duenez, gai hori nola kudeatzen duten galdetu diegu:***

**1. Errugbira zein hizkuntzatan jokatu izan duzue? Hasi zinetik orain arte?**

Beti euskaraz, dena euskaraz.

**2. Zuen arteko harremana zein hizkuntzatan izaten da? Aldageletan, partidetan...**

Kanariar bat ere izan dugu taldean eta une batzuetan gaztelaniaz ere egin behar izaten genuen berak ere ulertzeko. Eta ez zen erreza izan. Gu euskaraz jokatzera ohituta gaude, gure arteko harremana horrela sortu dugu eta gainera horrela izatea nahi dugu.

Denbora tarte hori guretzako oso arraroa izan zen, oso arraroa izan zen erdaraz entzutea gure taldean...

Berak ere azkenean ulertzen zituen hainbat gauza: animoak, "hemen nago" eta antzeko

esamoldeak ulertzeko gai izan zen; neurri batean edo bestean geurera moldatu zen.

**3. Elkartean euskararen erabilera nolako delako esango zenukete?**

Gurekin dena euskaraz egiten dute, gu ere horrela hasten gara, nolabait, markatu egiten dugu.

Sare sozialetan ere euskara erabiltzen ahalegintzen gara, baina zer hobetu badaukagu oraindik.

**5. Errugbian kirol moduan euskaraz jokatzeko aukera dagoela esango zenukete? Federazioarekiko harremana, epaileak...**

Bai. Federazioko dokumentuak ele bietan jasotzen ditugu, edozein komunikazio beti euskaraz eta gaztelaniaz heltzen zaigu. Eta

telefonoz deitutakoan ere lehen berba beti euskaraz izaten da. Nesken ligan epaileak ere ia denak euskaldunak dira; aurten, adibidez, bat izan ezin beste guztiak euskaldunak suertatu zaizkigu. Eta horrek asko laguntzen du.

#### **6. Gernika Rugby Taldeak euskara bultzatzen du taldeetan?**

Bai. Batetik errugbira euskaraz jokatzeko ohitura egon da hemen beti, guk hori ikusi dugu. Eta gero, mutilen kasuan, jokalarri batzuk kanpotarrak dira eta horiei euskaraz ikasi behar dutela esaten zaie, agindu zuzena izaten dute gutxieneko ezagutza lortzeko.

---

**Gu euskaraz jokatzera ohituta gaude, gure arteko harremana horrela sortu dugu eta gainera horrela izatea nahi dugu.**

---

#### **7. Zelan ikusten duzue Gernikan kirolaren egoera hizkuntzari dagokienez, kirola euskaraz egiteko aukerarik badaukagu herrian? Nolakoa da aukera hori zuen iritziz?**

Bai, aukera badago. Neska izanez gero, bada errugbira euskaraz jokatu dezakezu, eta saskira ere bai. Saskibaloian ere euskara asko entzuten da. Arraun elkartekoak ere euskaraz aritzen dira, hemen alboan entrenatzen ibiltzen direnean entzuten ditugu eta. Futboleak zailago daukate.

Beraz, Busturialdeko neskak errugbian jokatzera animatu nahi ditugu. Batetik errugbian lantzen diren balioengatik eta, bestetik, kirola euskaraz, dena euskaraz, egiteko aukera ezin hobea daukagulako.



## **BAKE LEKU TXOKOAK "ZERBITZUA EUSKARAZ"**

Bake Leku Txokoak 2016an Bai Euskarari Ziurtagiria mailaz igotzea lortu zuen "Zerbitzua Euskaraz" maila eskuratuz. Hitzaldi asko antolatzen ditu Bake Lekuk eta euren helburua horixe izan da azken urteotan, ekintza horietan euskara eta gaztelaniaz modu orekatuagoan kudeatzea. Ahalegin berezia egiten dute hitzaldiak euskaraz izan daitezen, eta hori lortu ezin denean, materiala euskaraz jartzen dute.





## IRATXE ITURBE // ZAINDU FISIOTERAPIA ZENTROA



### 1. Zein zerbitzu eskaintzen duzue zuen zentroan gaur egun?

Fisioterapia zentroetara normalean jendea gerriko minekin, tendinitisekin, zaintiratuak edo "esginzeak"... osatzen etortzen da.

Gaitz horiek tratatzeko ikastaro ugari egiten ditugu; teknika berriak ezagutu eta horrela pertsona bakoitzari eta bere "lesioari" hoberen dagokion teknika erabiltzeko. Gainera, INDIBA izeneko makina daukagu. Kirolari ospetsuen artean oso ezaguna da makina hori, lesioen errekuaratzea azkartzen duelako.

Gaitz edo lesio horiek sendatzeaz gain, gure zentroetan gure galeretan aditua den fisioterapeuta bat ere badugu. Fisioterapia uroginiekologikoan aditua da, eta besteak beste, gure galerak, prolapsoak, erditze osteko zoru pelbikoko arazoak,... zaintzen ditu. Horretarako ere teknika bereziak dakizki eta makina berezi bat dugu muskulu horiek indartu zein lasaitzen laguntzeko.

Ikastaro edo espezializazio desberdinen artean haurdunaldiko minak, haur txikitxoentzako masajeak, Gimnasia Abdominal Hipopresiboa eta Pilateseko klaseak ere ematen ditugu.

### 2. Euskarazko eskaintza zein da?

Guk lehenengo berba beti euskaraz egiten dugu, eta gero, bezeroak erabakitzen du zein

hizkuntza erabili. Euskaraz hasten gara eta gaztelaniara pasatzen bada jarraian, ulertzera ematen digu gaztelaniaz komunikatzeko hautua egiten duela (edo nahiago duela). Banakako zerbitzuetan bezero bakoitzak erabakitzen du.

### 3. Nola erabakitzen duzue taldekako saioen hizkuntza zein izango den? Zelan egiten duzue?

Normalean izena eman duten pertsonen adinak ere pista ematen digu. Gaur egun adibidez, haurdunaldiko edota umea izan osteko saio gehienak euskaraz izaten dira. Hemen, 30 urte bueltako bezero gehienak euskaldunak dira.

Pilateseko talde bat euskara hutsean ematen dugu. Gehienak hizkuntza bietan ematen ditugu zeren ia talde guztietan daukagu pertsona erdaldunen bat.

Banakako saioetan ere batzuetan pasatzen zaigu hitz teknikoak erabiltzera ez gaudela oso ohituta, ez gu, ezta bezeroak ere; orduan, sarritan, gaztelaniazko hitz teknikoak sartuta jarduten dugu, baina euskaraz.

### 4. Langile euskaldunak dituzue? Hautaketan kontuan hartzen duzue euskara maila?

Langile guztiak gara euskaldunak. Langileak kontratatzerakoan, adibidez, Zaindun lan egiteko ahoz euskaraz ondo moldatzea ezinbestekoa da. Hautagai bakoitzaren



curriculumaz aztertzen dugu, dituzten ikasgai edo ikastaro osagarriak kontuan hartuz, eta gero, elkarrizketa euskaraz egiten diegu; hor ikusten da trebetasuna duten ala ez.

## **5. Zuen sektorean, hau da fisioterapia arloan, euskararen erabilera nolakoa dela esango zenuke?**

Egia esan orain arte fisioterapia ikasketak egiteko aukerarik ez da egon hemen, Euskal Herrian. Beraz, azken promozioak kenduta gainerakook gaztelaniaz ikasi behar izan dugu. Aldatzen ari den kontua den arren, giro erdalduna da teknikoki. Gainera, etengabeko formakuntza euskaraz egiteko aukerarik ere ez daukagu oraindik.

Badaude hiru-lau blog fisioterapia gaiez euskaraz jarduten dutenak, baina proportzioan oso baliabide tekniko gutxi daukagu.

## **6. Zuen enpresaren identitate ikurretako bat zerbitzua euskaraz eskaintzea ere bada, bereizgarri bat. Nola kudeatzen duzue publizitatea hizkuntza batean baino gehiagotan egitea, adibidez?**

Bai. Guk beti erabiltzen ditugu hizkuntza biak. Normalean mezuaren hartzaileak kontuan hartuta kudeatzen dugu. Esate baterako, kalean jartzeko kartelak ateratzen baditugu, Gernikako biztanleen hizkuntza gaitasuna kontuan hartzen dugu; euskaraz ulertzen ez dutenak ere badaude, beraz, ele bietan egiten ditugu kartelak. Hori bai, ahal dugun heinean testuak ez errepikatzen saiatzen gara.

Sare sozialetan guk sortutako testua euskaraz eta erdaraz jartzen dugu. Edo egun batean euskaraz eta hurrengoan erdaraz.

## **7. Hitzargune-n parte hartzeak zertan lagundu dizue edota laguntzen dizue zuei? Guretzako oso baliagarria izaten da itzulpen edota zuzenketetarako. Lehen aipatu dizudan moduan, hitz teknikoak erabiltzen ditugu eta horiek ondo daudela bermatzeko jotzen dugu Hitzargune-ko teknikariengana.**

Eta horretaz gain, beste enpresa batzuekin batera herrian euskara bultzatzeko.



2009. urtetik da Zimela Jatebxea HITZARGUNEko kide, eta aurten ere jatebxeako kartak eta menuak euskaratu ditu.

# **"BUSTI EZTARRIA EUSKERAZ"**

Herrian ostalaritzak duen eragina ikusita, sustapen kanpaina berezia egin genuen urriaren 28tik 31ra, urriko azken astelehenarekin batera. "Euskaraz goxogoxo" leloa zuten paperezko mahai-zapiak banatu genituen herriko hainbat taberna eta jatebixetan.

Euskararen sustapen elementu honen bidez 17 kide berri batu dira HITZARGUNEra: Boliña Zaharra, Auzune, Gerni Jan, Ipar Tabernie, Oinak Garagardotegia, Anaiak, Foruria, Gernika, Norte, Katia Bokateria, Zuhaizpe, Arrien, Sakone, Ai Enel, Lagun Etxea, Oka eta San Juan Ibarra.

Bete genituen kanpainaren helburu nagusi biak hein handi batean: hainbat jatebxe Hitzargune proiektuan parte hartzea lortu genuen; eta eurek erabiltzen dituzten kartel, menu eta antzeko asko eta asko euskaraz jartzea ere bai.

Sektorean euskara bultzatzeko bide-orrian beste ekintza bat garatuko dugu datozen asteotan:

Maiatzean, "Busti eztarría euskeraz" kanpainari hasiera emango diogu. Oraingo honetan, edalontzi-azpikoak banatuko ditugu taberna eta jatebixetan. Bigarren kanpaina honek ere sektoreko hizkuntza erabilera aldaketak lortzea du helburu.

# HITZAR GUNE KOAK

**195**  
merkatari  
/ ostalari

**52**  
enpresa

**59**  
elkarte

## merkatari eta ostalariak

@GREEN, Adela Garteiz, Ainhoa, Aitor ileapaindegia, Alboka taberna, Aldatsa, Alkar Kirolak, Alluntiz, Amilotox, Amutio, Ares Dastalekua, Argia Optika, Argibide, Arrien, Arronategi, Artetxe, Atxike, Auto Cramer, Bake Eder kafetegia, Baraiazarra Soinu Etxea, Bareño, Bazar Txikia, Bed, Beep Gernika, Bego eta Nerea, Bengo etxea, Berezi, Bidaguren Gozotegia, Bikaña, Bilbao Aseguruak, Boliña, Bonilla, Broncearium, Caserio Jatetxea, Charanga, Comercial Uriarte, Crespo, Decorev, Deikar, Dionisia, Dominguez Farmazia, Donibane, Duka, Dusi, Eguarditza, Eguren Optika, Ekhiore Parafarmazia, Elejaga Farmazia, Errekamendi, Eskutik Urdaibai, Etxeko Makailoak, F2 zapata dendea, Fan's Boutique, Fermin Zapata dendea, Fruitak eta barazkiak Isabel, Garoa interiorismo, Gaubeka, Gerni Garden, Gernika Informatika, Gernika Ortopedia, Gernika Zerraildegia, Gernika-Lumoko Batzokia, Gloss, Gloss- Boca - Boca, Gonzalez Dekorazioa, Gotzone, Gremios Gernika, Gurea Altzariak, Haurren Mundua, Ibaurre, INT Torrealday, Inter Sport Extreme, Irabazal, Iruskietak bitxi-denda, Iturbe anaiak, Izaga ileapaindegia, Izaskun Egurrola, Izaskun harategia, Jabier Harategia, Jare belar-denda, Jasone ileapaindegia, Jesus Mari harategia, Jose de Castro Fotodenda, Josten, Juanita Mugartegi, Junira Cafe, Karan estetika zentroa, Kebi, Kikaren Munduan, Kipu, KM.O, Kopi Laster, Kopikolor, Kotoi, L. de Carlos Tabakoa, La Botica de la Abuela, Labakoa, Ladis Design, Lagun On, Legoie Taberna, Lejarraga bitxi-denda, Lezama Taberna, Loiolene Barazkiak, Loredor, Lourdes fruta denda, Lula, Lumiere, Lurgorri degustazioa, Lurgorri parafarmazia, Mabe, Madariaga, Maite, Makuesgas instalazioak, Mari Karmen estetika-etxea, Mari Tere, Maria Luisa, Marian Orrategia, Marisol fruta dendea, Mikel, Naia, Nere Kabia, Nere Sustraiak, Obaba, Ogoño arraindegia, Ojanguren Elektratresnak, Olga, Omaetxebarria Farmazia, Omago, Omago Dietetika, Onena burdindegia, Ospa tabernie, Paraphernalia, Pepi Urdaitegia, Podium Garaiurrak, Quokka, Saloki, San Juan Ibarra, San Juan Loteria, Sandalio, Serigrafia Sestao, Sysbat informatika, S.L (Euskaltel), Tandem, Teo autoeskola, Tistel, Todo desde 100, Trenbide, Trini Jurado estetika-zentroa, Twente, Txanank, Txofri, Ugalde Ortopedia, Uleak, Umeak, Uranga, Urdaibai Artekzaritza, Urdaibai Informatika, Uskola Baserri Tresnak, Vic Sec Tindategi Arina, Zallo Barri, Zarra, Zarrandi, Zimela, Zubialde Okindegia, Zurich, Zuhazpe taberna, Urbarri instalazioak, Txiki txoko, Twente, Plazakoa, Tecní Ruedas Gernika, Norte, Oinak Garagardotegia, Oka Taberna, Orue Iturgintza, Ospa tabernie, Rugby Taberna, Sakone, Saloki, Ai Enel, Anaiak Taberna, Arane jatetxea, Auzune, Boliña Zaharra, Charanga, Era ileapaindegia, Foruria taberna, Garoa interiorismo, Gerni Jan, Gernika Jatetxea, Ipar Tabernie, Katia Bokateria, Lagun Etxea, Mai Piu, Mononake

## enpresak

2klik, Abaunza Aholkularitza, Aita Villasante Udal Euskaltegia, Akelarre Ostata, Algeleak SL, Alkiber, Amunategui - Zalabarría Abokatuak, Apraiz, Areza Eraikuntzak, Arronategi Pinturak, Arroyo Banaketak, Arzanegi arquitectura, Arzanegi y Oar Abogados, Auka Bidaia, Bidekurtze Eraikuntzak, Big Sense Mama, Cor SL Gestoria, E.S Amunaga S.L, Egarriak, Sistemas Comerciales, Exclusivas Gernika SA, Gakoak, Generali Aseguruak, Gernika Inmobiliaria, Gernika Kirolekua, Gernike Kooperatiba, Gondra Abaroa, Gorra Bulkanizatuak, Hiruluger, I. Izagirre SA, Intxausti SA, Irabazal Ardautegia, Jose Luis Kristaldegia, La Caixa, Label desing, Lanpyme, Leoncio Fernandez, Lezeaga, Lur Estudio Inmobiliario, Macias Inmobiliaria, Mallukiza Aroztegia, MRW, Oka informtika zerbitzuak, Pbu Asesoras, San Isidro Nekazar Kooperatiba, Sanjo Inox SL, Sendagai, Sorkunde Garcia Finka Administratzailea, Talleres Sanjo, Ttipi-Ttapa, Urbarri, Urrutia Abokatuak, Urrutia Asesoria, Zaindu Fisioterapia Zentrua

## elkartekak

Ades, Agiri Elkartea, Arkupe Pilota Taldea, Elhiztar, Arrantzale eta Tiratzaileen Elkartea, Emakumeen Futbol Taldea, Etsaiak, Gernika Futbol Sala, Gernika Off Road, Gernika Racing Elkartea, Gernika Sporting Futbol Taldea, Gernikako Arku-Tiroketa Elkartea, Gernikako Rugby Taldea, Goizale, Jai Alai, Kosnoaga Igeriketa Elkartea, S.D. Gernika Club, Sociedad Ciclista Gernikesa, Urdaibaiko Rugby Eskola, Aiuri, Andra Mari Korala, Arrano Kultur Elkartea, Bake Leku, Bakearen Arbola, Barrutialde Antzerki Taldea, Busturialdean Euskaraz, Elai Alai Dantzari Taldea, Gaudeamus Korala, Gautek Kultur Taldea, Gernikako Arte Eskola, Gernikako Bertsolari Eskola, Gernikazarra Historia Taldea, Goizeko Izarra Gazte Taldea, Hilargi Lore, Ieup Gazteen Elkartea, Kosnoaga Gazte Taldea, Makatz Iturri Taldea, Makazaga Musika Elkartea, Musikeder, Ostargi Abesbatza, Satorgorri, Zantzoa Euskal Kultur Elkartea, Zine Klub, Alargunen Elkartea, Allende Salazar Ikastetxeko Guraso Elkartea, Asinsoc, AVIFES, Elizbarutiko Karitas, Emakide, Gernikako Emakume Elkartea, Gernika Gogoratu, Gernika-Lumoko Merkatarri Elkartuak, Gernikako Ekologi Lan Taldea, Gernikatik Mundura, Ideasur, Odolkideak, Tiris Gernika Sahararen Alde, Urdaibai, Urdaibikers Motorzaleen elkarte, Urdaibaiko Perretxikozaleak Elkartea, Hirugarren Adinekoen Elkartea, KESB

